2024ko abuztuan erregistratutako langabezia

2024ko abuztuan, 3.298 langabe gehiago erregistratu dira LANBIDEren bulegoetan, hau da, % 3,05 gehiago, eta 111.363 pertsona daude langabezian. Hilabete honetako langabezia-zifren bilakaera abuztuko ohikoa da; izan ere, hilabete horretan langabeziak gora egin ohi du, baina hilabete honetako saldoak 2021ean hasitako beheranzko joera eten du, eta 2010etik izandako saldorik altuena da



	abu.-10	abu.-11	abu.-12	abu.-13	abu.-14	abu.-15	abu.-16	abu.-17	abu.-18	abu.-19	abu.-20	abu.-21	abu.-22	abu.-23	abu.-24
Saldoa	3.461	632	2.314	1.514	1.795	1.896	1.650	2.338	2.549	2.994	3.090	3.058	2.564	2.483	3.298

Urte arteko saldoaren bilakaerak, hileko bilakaeran emandako datu txarra islatzen du, 2.705 (+%2,49) langabetu gehiago baitaude, iazko abuztuko kopuruekin alderatuta. Egia bada ere egiturazko langabeziaren pisua gero eta handiagoa dela, erregistratutako langabeziaren bilakaera positiboa zailduz, azken hilabete hauetan erregistratzen ari den urte arteko langabezia hazkundearen jarraipena egin beharko da. Nolanahi ere, datozen hilabeteetako portaerari erreparatu beharko zaio, gertaera puntuala den, biztanleria Lanbideren zerbitzuetara gehiago hurbiltzeagatik den edo aldaketa sakonago batek eragindakoa den zehazteko.

Gaur egun erregistratutako langabeen kopurua 2013ko martxoko maximo historikotik 67.978 pertsonetara dago, 2008an hasitako krisiaren unerik txarrenean. Era berean, 40.408 langabe gehiago daude 2007ko ekainean baino; orduan erregistratu zen azken hamarkadetako gutxieneko historikoa.

Beste abuztu batzuetako balio maximo eta minimoei dagokienez, 2024ko abuztuko langabeen kopurua 61.744 txikiagoa da 2013ko abuztua baino, eta 35.849 handiagoa 2007ko abuztukoa baino



• SEXUA

Sexuaren araberako datuak kontuan hartuta, langabeziak gora egin du bi sexuetan, baina emakumeen portaera okerragoa izan da bai hileko alderaketan baita urte artekoan ere. Hala, hileko saldoan 2.289 emakume gehiago (+%3,64) eta 1.009 gizon gehiago (+2,23) daude langabezian. Urte arteko saldoan, gizonak 909 gehiago dira (+%2,01), eta emakumeak 1.796 gehiago (+%2,83).

• ADINA

Datuek erakusten dutenez, adin-tarte guztietan igo da hileko saldoa, iaz gertatu zen bezala, eta 30-45 urtekoen taldean igo da gehien, bai kopuru absolutuetan (+2.203), bai kopuru erlatiboetan (+%7,10). 45 urtetik gorakoek izan dute igoera txikiena hileko datuetan (+396 pertsona, % 0,67ko igoera). 30 urtetik beherakoen artean, hileko saldoa 699 pertsonatan igo da (+%3,96).

Urte arteko saldoan, 30 urtetik beherako gazteak dira bilakaerari dagokionez daturik txarrena dutenak, aurreko urtean baino +1.314 (+%7,70) pertsona gehiago baitaude. 45 urtetik gorakoen taldea, hileko saldoarekin gertatzen den bezala, igoera txikiena izan duena da, urte arteko +447 pertsonako saldoarekin (% 0,75eko igoera).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Datua sektoreka hartuta, hilabete honetan langabeziak gora egin du zerbitzuetan (3.220 pertsona gehiago), Industrian (306 gehiago) eta Eraikuntzan (95 gehiago). 2023ko abuztuan, langabetuen kopurua igo zen sektoreak berberak izan ziren; hala ere, zerbitzuen sektorean abuztuko saldoa % 33,9 handiagoa izan da 2023ko abuztukoa baino. Aitzitik, aurreko enplegurik gabekoen artean -299 pertsona gutxiago daude, eta Nekazaritzan -24 gutxiago.

Urte arteko saldoan, zerbitzuen sektoreak jarraitzen du izaten daturik txarrenak dituena, 2.484 langabetu gehiagorekin (+%3,24); hala ere, aurreko enplegurik gabekoetan izan da igoera erlatibo handiena (+%5,13), hau da, 669 pertsona gehiago. Gainerako sektoreetan, urte arteko saldoan behera egin du langabe pertsonen kopuruak.

Xehetasun handiagoz, azken hilabetean langabeziak behera egin duelako gehien nabarmentzen diren jarduerak hauek izan dira:

o Aurretik lanik gabe	- 299
o 55 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak	-35
Erregistratutako langabeziaren igoeragatik nabarmentzen diren jarduerak:	
o 85 Hezkuntza	1.929
o 47 Txikizkako merkataritza	189
o 78 Enpleguarekin lotutako jarduerak	185
o 94 Elkarte-jarduerak	155
o 56 Janari- eta edari-zerbitzuak	121
o 88 Ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuetako jarduerak	114

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan iraupen luzeko langabezia 109 pertsonatan murriztu da. Aitzitik, iraupen laburrekoak 3.407 pertsona gehiago izan ditu. Iraupen luzeko langabeen kopurua % 48,0 da, uztailean baino 1,5 p.p. gutxiago.

Termino erlatiboetan, urteko erreferentzian, luzaroko langabeen kolektiboak gora egin du, 571 pertsona gehiago (% 1,5 gehiago), eta iraupen laburreko langabeen kolektiboak % 3,82 egin du gora, hau da, 2.134 langabe gehiago.

Iraupen luzeko langabeen profil nagusia emakumeen artean, Bizkaian, eta 44 urtetik gorakoen artean dago. Azken hilabeteko bilakaera erlatiborik onena gizonei, 30 urtetik beherako pertsonei eta Gipuzkoan eta Bizkaian bizi diren pertsonei dagokie. Iazko datuekin alderatuta, iraupen luzeko langabeziak gora egin du 30 urtetik beherakoen artean (+271, +%5,7) eta emakumeen artean (+509, +%1,6). Lurralde historikoen arabera, Araba da iraupen luzeko langabeen kopuruak behera egin duen lurralde bakarra, aurreko urtean baino 292 pertsona gutxiago baitaude, % 3,1eko jaitsiera.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Hil honetan, pertsona langabeen kopuruak gora egin du lurralde guztietan. Horrela, aurreko hilean izandako joeraren antzekoa izan da: Gipuzkoan izan da igoera erlatibo handiena (+%4,64), gero Bizkaian (+%2,84) eta azkenik Araban (+%1,29).

Urte arteko saldoan, Araban bakarrik jaitsi da langabeen kopurua (- 542 pertsona, -% 2,85). Bizkaian izan da hazkunde absoluturik handiena, 2.090 pertsona gehiagorekin (+%3,43). Ondoren Gipuzkoa dator, hazkunde erlatibo handienarekin (+%4,03), non 1.157 langabe gehiago dauden.

Hilabete honetan, langabeen saldoa positiboa izan zen EAEko hiru hiriburuetan, eta Donostiakoa izan da igoera erlatibo handiena izan duena, % 2,93ko hazkundearekin. Ondoren, Bilbo eta Gasteiz datoz, % 1,54 eta % 0,82ko igoerekin, hurrenez hurren. Urte arteko datuei erreparatuz gero, langabeziak ere gora egin du hiriburu guztietan: Donostian 249 langabe gehiago daude (+%3,76), Bilbon 575 gehiago (+%2,72) eta Gasteizen 49 gehiago (+%0,34).

Abuztuan langabezia-tasa handienak izan dituzten udalerriak Lanestosa (% 19,13), Sestao (% 15,56), Amurrio (% 15,06), Ortuella (% 14,57) eta Ikaztegieta (% 14,35) izan dira.

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2024ko abuztuan, 38.732 langabek, aurreko hilean baino 3.781 gehiagok, langabezia-prestazioren bat jaso dute. Gaur egun, langabeen % 34,8k langabezia-prestazioren bat jasotzeko eskubidea du. Langabeen % 21,2k (23.625 pertsona) kotizaziopeko prestazioa jasotzen dute, aurreko hilean baino 2,8 puntu gehiago. % 12,51k (13.929 pertsona) langabezia-subsidioren bat kobratzen du. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa da babes handiena duen lurralde historikoa, % 38,1eko tasarekin; Bizkaian % 33,9koa da eta Araban % 32,3koa.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, langabeziagatiko estaldura-tasa 2,44 puntu igo da, eta iazko abuztuarekin alderatuta 1,75 puntu.

• JATORRIA

Guztira langabezian dauden pertsona guztietatik 19.460 (% 17,5) atzerritarrak dira. Uztailarekin alderatuta, desenplegua murriztu egin da atzerritar jatorriko pertsonen artean: -176 pertsona (-%0,90ko beherakada). Abuztuan, langabeziak joera hobea izan ohi du atzerritarren artean, murriztu egiten baita aurreko hilabeteekin alderatuta, eta, aldiz, nazionalitate espainiarra dutenen artean areagotu egiten da, hilabete honetako datua +3.474 (+%3,93) delarik.

Urte arteko bilakaeran, atzerritar jatorriko langabeak % 6,57 igo dira, eta espainiar nazionalitatea duten pertsonak, % 1,67.

Hileko saldoari dagokionez, hilabete honetan, langabeen saldoa nazionalitate espainiarra duten pertsonek baino ez dute osatzen; urte arteko saldoari dagokionez, hau osatzen duten 1.890 pertsonetatik, % 44,33 (1.199) atzerritarrak dira. Iaz, 2023ko abuztuan, atzerriko langabeen urte arteko saldoak 597 pertsona gehiago zituen, urte arteko % 3,38ko gehikuntzarekin. Urte honetan, urte arteko saldoa 3,19 puntu handiagoa izan da.

Atzerriko langabeen % 31,4 Afrika iparraldetik datoz, % 27,5 Latinoamerikatik, % 16,2 Europako Esparru Ekonomikotik, % 11,1 Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta % 6,7 Asiatik.

• IKASKETA MAILA

59.200 langabek, guztien % 53,2k, derrigorrezko hezkuntzako ikasketak dituzte gehienez. Azken hilabetean, langabeziak behera egin duen talde bakarra da: -115 pertsona, hau da, -% 0,19ko jaitsiera. Azken urtean, oinarrizko prestakuntza-maila dutenen taldea da langabezia igoera txikiena izan duena, % 0,09ko igoerarekin, hau da, 55 pertsona gehiago.

Batxilergora arteko ikasketak dituzten langabeak langabetu guztien % 7,8 dira. Azken hilabetean, talde horretako langabezia % 3,58 igo da, eta azken urtean % 4,38.

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetuak 27.435 dira, guztizkoaren % 24,6. Hil honetan +259ko saldo positiboa izan dute eta, aurreko urtearen aldean, % 4,11ko hazkundea.

Azkenik, langabeen % 14,4k, hau da, 16.025 pertsonak, unibertsitate-ikasketak dituzte, eta kolektibo horrek ditu daturik txarrenak, bai hileko saldoan, baita urte artekoan ere. Hileko datuei dagokienez, 2.853 pertsona gehiago daude langabezian (+%21,66), eta aurreko urteari dagokionez, 1.203 pertsona gehiago (+%8,12). Igoera hori ohikoa da data hauetan; aurreko urtean, adibidez, talde horretan erregistratu zen igoerarik handiena, baina aurten 11,92 puntu handiagoa da. Fenomeno hori graduko ikasketak ekainean amaitu izanari zor zaio batez ere,

eta horrek esan nahi du graduatu gehiago daudela Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan langabezia % 0,86 igo da, 21.884 pertsona gehiago, eta guztira 2.572.121 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, erregistratutako langabezia % 3,05 igo da. Nafarroan % 0,22 igo da, Errioxan % 1,0 jaitsi da, Kantabrian % 0,1 jaitsi da eta Gaztela eta Leonen % 0,95 igo da. Katalunian % 2,66 igo da, eta Madrilen % 0,58.

Lan-eskatzaile langabeak 2024ko abuztuan

	Abu-2024	Uzt-2024	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	46.183	45.174	1.009	2,23
EMAKUMEZKOAK	65.180	62.891	2.289	3,64
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	18.371	17.672	699	3,96
GIZONEZKOAK	8.689	8.549	140	1,64
EMAKUMEZKOAK	9.682	9.123	559	6,13
25-44 URTE:				
GUZTIRA	33.222	31.019	2.203	7,10
GIZONEZKOAK	12.310	11.687	623	5,33
EMAKUMEZKOAK	20.912	19.332	1.580	8,17
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	59.770	59.374	396	0,67
GIZONEZKOAK	25.184	24.938	246	0,99
EMAKUMEZKOAK	34.586	34.436	150	0,44
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	1.868	1.892	-24	-1,27
INDUSTRIA	10.508	10.202	306	3,00
ERAIKUNTZA	6.001	5.906	95	1,61
ZERBITZUAK	79.268	76.048	3.220	4,23
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.718	14.017	-299	-2,13
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	18.490	18.255	235	1,29
BIZKAIA	62.995	61.258	1.737	2,84
GIPUZKOA	29.878	28.552	1.326	4,64
EAE	**111.363**	**108.065**	**3.298**	**3,05**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bajo Bidasoa	3.831	10,1%	96	2,57	163	4,56
Oarsoaldea	3.379	9,0%	102	3,11	120	3,80
Donostia-S.Seb.	6.880	7,7%	196	2,93	175	2,69
Donost.Oeste	3.041	7,8%	173	6,03	66	2,36
Tolosaldea	1.903	7,9%	80	4,39	17	0,94
Urola Erdia	1.320	8,4%	155	13,30	4	0,34
Goiherri	1.705	7,9%	93	5,77	68	4,40
Alto Deba	2.425	7,9%	116	5,02	20	0,87
Bajo Deba	2.742	10,4%	140	5,38	15	0,58
Urola Garaia	1.102	9,0%	27	2,51	20	1,90

Urola Kosta	1.550	6,6%	148	10,56	83	6,29
GIPUZKOA	29.878	8,4%	1.326	4,64	751	2,70
Vitoria-Gasteiz	14.315	11,1%	116	0,82	305	2,20
Valle de Aiala	2.195	11,6%	76	3,59	59	2,86
Rioja Alavesa	521	9,1%	1	0,19	17	3,38
LLanada Alavesa	690	9,1%	7	1,02	14	2,09
Estrib. Gorbea	302	6,0%	24	8,63	-1	-0,36
Valles Alaveses	386	7,4%	2	0,52	29	8,17
Montaña Alavesa	121	7,3%	5	4,31	19	19,59
ARABA	18.490	10,8%	235	1,29	-219	-1,19
Gobela	4.413	8,6%	113	2,63	101	2,41
Txorierri	2.121	9,1%	42	2,02	77	3,85
Uribealdea	2.964	8,4%	186	6,70	66	2,43
Duranguesado	3.314	8,8%	193	6,18	88	2,90
Busturialdea	2.106	9,4%	214	11,31	-26	-1,36
Lea-Artibai	942	7,8%	125	15,30	-29	-3,43
Encartaciones	1.868	11,8%	8	0,43	65	3,62
Arratia-Zornotza	1.514	8,5%	99	7,00	58	4,27
Medio Nervion	1.274	9,6%	42	3,41	-20	-1,60
Bilbao	21.717	12,7%	330	1,54	420	2,00
Margen Izquierda	16.331	12,9%	283	1,76	499	3,21
Ibaizabal	4.389	10,7%	105	2,45	66	1,56
BIZKAIA	62.995	11,1%	1.737	2,84	1.358	2,27
CAPV	**111.363**	**10,1%**	**3.298**	**3,05**	**1.890**	**1,78**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.